


Ixone Minguez eta Aitor Galdos, erronka berriei aurre eginez

Irailaren hasiera, ikasturte berri baten hasiera izan ohi da gehienentzat eta kirolarientzat ere bai. Denboraldi hasieran, asmo berriak izaten dira eta horren adibide, bi ermuar gazte hauek dira. Ixone Minguez eta Aitor Galdos.



Ixone Minguezek 23 urte ditu eta 10 urte zituenetik eskubaloian jokatu izan du. Ermuko hainbat taldetan aritu ostean, Donostiako Akaba Bera Bera taldeak deitu zion eta zenbait egunez erabakia ondo aztertu ostean, 2 urterako kontratua sinatu du. Hasieran kezka eta zalantzak zituela aitortzen du. *"Ez zen erabaki erreza. Ermua utzi, lagunak, mutilaguna, familia..."* Maila bikaina duen taldera joan da Ixone eta hasieratik taldeko kideek eskuzabal eta laguntzeko prest hartu dutela dio. Ez da taldean dagoen ermuar bakarra, Matxalen Ziarsolo eta Esther Larreategi ere han baitira. *"Haiei gomendioak eta berotasuna"*, eskertzen dituela aitortzen du. Abuztu osoa entrenatzen eman du, goizez eta arratsaldez eta hori egin omen zaio gogorrena. Aste osoa Donostian pasatzen du, eta nahiz eta ikasketak amaitu berri dituen, unibertsitatean beste karrera batean izena emateko asmoa du. Etxekoak oso pozik daudela dio eta hasieratik animatu zutela erabaki hau hartzera. Ohorezko maila-

ko ligan jokatzear gain, European ere jokatzeko aukera izango du Ixonek. Urte guzti hauetan, garaiera haundiko neska denez, hegalean jokatu izan du, nahiz eta denboraldi hasiera honetan, postu guztiak probatu behar izan dituen. Hastear duen denboraldiari, taldera eta mailara ondo moldatzea, gustora aritzea eta esperientzia hartzea nahiko lukeela dio.

Txirrindularitza

Aitor Galdosek 27 urte ditu. Txirrindularitza profesionalera jauzia eman zuenean, ez zuen Euskal Herrian jarraitzeko aukerarik izan eta azken 5 urteak, Italian eman ditu, hango taldeetan. *"Aurtengo Apirilean Euskaltel-Euskadi taldekoak etorri zitzaizkidan, niregan interesa zutela esanez. Abuztuan hitz egiteko geratu ginen"*, dio. Belgikan eta Dinamarkan garaipenak eskuratu ditu aurtun eta eskaintzak ez zaizkio falta izan. Euskaltel-Euskadi taldeaz gain, UCI-Pro Tourreko beste 3 talderen eskeintzak izan ditu. *"Ekonomikoki hobeak ziren baina nik hemen korritu nahi*

nuen, etxean, etxeko talde batean eta eskaini didaten proiektua asko gustatu zait", gaineratzen du. 2 urterako sinatu du eta denboraldia, urtarrelean hasiko du Mallorkako itzulia eginez. Orain, atsedenaldia izango du eta udazkenean berriz ekingo die entrenamenduei.

Azkenaldian txirrindularitzan izandako zalapartek, kalte haundia egin diotela txirrindularitzari uste du. *"Txirrindulariok jada asperturik gaude. Sinisgarritasuna ere galdu du gureak eta ezer egiten ez bada, amaiera laister da"*, aitortzen du. Arazoak arazo, aurrera egin beharra dago eta ilusioz da denboraldi berriari ekiteko. *"Etxekoak oso pozik hartu dute berria. 19 urte nituenetik beti kanpoan egon naiz eta estimatzen da senideen berotasuna"*, gaineratzen du. Denboraldi berrian, klasikak eta lasterketa txikiak izango dira bere helburua, nahiz eta Giroan edo Tourrean izango den taldean ere egon litekeen. Munduko Txapelketa prestatzea eta garaipen bat lortzea ditu orain asmo nagusiak.

Asier Ibaibariaga

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Asteleheneetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona